



Uztailak 2, 3 eta 4



9:00-14:00



Donostiako EHU

## 18. Iufala!! Pro

Antzerkia, jendearen denbora-pasarako egiten den ikuskizun bat izateaz gain, garapen pertsonala lantzeko erreminta izugarria da. Ikastaroan alderdi horri emango diogu garrantzia. Pertsonaiak lantzen ditugun heinean, nahi edo ez nahi, jendeak berez dituen aberastasunak ikertzen ditugu. Gaitasun fisikoak, adimen emozionala eta sena gure eguneroko jardunean daude. *Iufala! Antzerki egitaraua* LHko ikasleak pertsonon berezko gaitasunak sendotzeko sortuta dago eta *Iufala!! Pro* hezkuntzako profesionali egokitua dagoen ikastaroa da. Eskarmentua izan edo ez izan, lotsak kudeatu edo saihestu, parte hartzeko nahikoa da antzerkiaren ahalmen pedagogikoak jakin-mina piztea.



Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako irakasleentzat eta DBHkoentzat sarrera gisa. Lehen Hezkuntzako beste mailetan anterkigintzaren irizpideak barneratzeko eta jolasten hasteko balio du.



Ikasleek bezala biziko duzue, leku horretatik zalantzak, oroitzapenak eta jakin-mina partekatuko ditugu eta egitaraua osatuz doan heinean, lantaldea sendotuz joango da. Une batean, antzerkiaren ahalmen pedagogikoa erabiltzeko aukerak zuei bururatuko zaizkizue.

### LANDUKO DIREN GAIAK

- **25 ikaslerekin aurkezteko antzezlanak:**
  - Ezaugarriak
  - Sormena
  - Lanketa
  - Aurkezpenerako baldintzak
- **Filosofia:**
  - Rolaren garapena, orain eta hemen, burujabetza, malgutasuna, pertseberantzia, arnasa, enpatia, gorputzaren memoria, zabalitzea, erresilientzia, ahotsa, gorputzaren ezagupena, berdintasuna, bizikidetzak, lan-taldea, jende aurrean aurkeztea, irudimena...



### Iurgi Etxeberria Gutierrez

Apropox sormen iturriko bideratzailea. *Iufala!* eta *Baliatu* egitarauen sortzailea. 10 ikasturtez, 8 ikastetxetan eta 19 lerrotan dihardu.

Eman izena

